



Lana / La obra

Paper-ertz batean egindako bozeto moduko batzuk dira ipuinok Bachmannentzat, eta, emakume batzuen erretratua egiteaz gainera, garai jakin bateko ohiturak ere erakutsi nahi izan zituen.

Ipuin independenteak dira denak, baina egitura zikliko bat osatzen dute denen artean. Lehenengo ipuina (*Aldibereko*) eta azkena (*Aintzirarako hiru bide*) liburuaren bizkarhezurra dira: ipuin horietako bi emakume protagonistak profesional arrakastatsuak dira –aldibereko interpretea bata, kazetari eta argazkilaria bestea–, eta kontraste nabarmena egiten dute beste hiru istorioetako emakumeekin, zeinak nartzisismo hutsalean, beldurrean eta errealtatea ukatzeko ahaleginean katramilatuta baitaude.

Idoia Santamaría Urkaregi

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Aldibereko**

Egilea / Autor: **Ingebor Bachmann**

Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 176

ISBN / EAN: 978-84-9109-422-7

Salneurria / Precio: 16 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 288

Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 13 x 19,5 cm

Materia: Helduentzako literatura - Literatura para adultos



Egilea / La autora

Ingeborg Bachmann, poeta eta idazle austriarra, Klagenfurten jaio zen, 1926an, eta 1973an hil, Erroman.

Filosofia, psikologia, aleman-filologia eta zuzenbidea ikasi zituen, eta doktore izendatu zuten Filosofian Vienako Unibertsitatean, Martin Heideggerren filosofia existentzialari buruz idatzitako tesia aurkezturik.

Lizentziatu ondoren gidoilari eta editore gisa lan egin zuen. Literaturaren munduan aurrera egiteko, funtsezkoa izan zen *Gruppe 47* literatura talde ospetsuarekin izan zuen harremana eta bertan jokatutako papera.

1953an Erromara joan zen bizitzera, eta han ondu zituen bere lanik ospetsuenak bertan hil zen arte 1973an, *Aldibereko* ipuin-bilduma hau, besteak beste.

Bizi zelarik bere bi poema-bildumari esker ezaguna bazen ere, hil ondoren arrakasta handia izan zuen irakurle feministen artean, eta gero eta arreta handiagoa jarri zitzaion haren prosazko lanari. Emakumeek Austriako gerraosteko gizartean bizirauteko eta beren ahotsa bilatzeko egin beharreko borroka aztertzen du bere prosa-lan askotan.

Itzultzailea / Traductora

Idoia Santamaría Urkaregi (Donostia, 1962). Euskal Filologian lizentziaduna. Elhuyarren lan egiten du itzultzaile, zuzentzaile eta trebatzaile. Elhuyarren hasi aurretik, Luxenburgon lan egin zuen Europar Batasuneko itzultzaile.